

BIZKARRERA KO EXOESKELETO MEKANIKOA

Exoeskeletoa pertsona batek daraman eta zeregin fisikoak egiteko laguntza gehigarria ematen duen gailu eramangarria da.



BIZKARRERAKO EXOESKELETO MEKANIKOA

Bizkarrerako exoeskeleto mekanikoak ahalegin fisikoak eragindako gerrialdeko lesioak murriztea eta prebenitzea ahalbidetzen du.

Zertan oinarritzen da?

Gerrialdean egiten den ahalegina murrizten du. Lan egitean, makurtutakoan, aurrean jartzen da eta jarrera horri eusten dio, esfortzua bularrera eta zangoetara transmitituz.

Bularraldean berme-puntu bat eskaintzen du, langilea aurrean makurtzen denean. Indar hau, sistemaren bidez, zangoen goialderaino transmititzen da, gerrialdean esfortzua murriztuz.

Abantailak

- ▶ Gerrialdeko gihar-jarduera murriztea.
- ▶ Lan-denboraren eraginkortasuna handitzea.
- ▶ Mugitzeko askatasuna, arina eta egitura malgukoa.
- ▶ Ezartzen erraza.
- ▶ Mantentze-lan minimoa.
- ▶ Ez du kanpoko energiarik behar.
- ▶ Biltegitatzeko eta garbitzeko erraza.

Norentzat da?

Bizkarreko postura behartuetan eta/edo kargak edo pertsonak manipulatzen lan egiten duten pertsonak erabiltzen dute, besteak beste, automobilgintzan, aeronautikan, industria astunean, logistikako edo biltegiko lanetan, osasun-sektorean...



Garrantzitsua

- ▶ Ez da erabili behar lan-errendimendua handitzeko.
- ▶ Irakurri erabili aurreko jarraibideen eskuliburua.





► PROBATU NAHI DUZU? ◀

Kontaktatu Mutualiaren PREBENTZIO AHOLKULARITZArekin, hemen:

prebentzioa@mutualia.eus

900 50 60 70